OLAIA KASTRESANAREN HERIOTZA



ALFREDO ALDAI / EFE

BAK-EN ELKARRETARATZEAK. Bakearen Aldeko Koordinakundeak elkarretaratzeak egin zituen atzo Bilbon —argazkian—, Gasteizen eta Donostian, Kastresanaren heriotza dela eta.

Alderdi politikoek ETAri egotzi diote Kastresanaren heriotzaren ardura

Indarkeriaren ondorioez «hausnartzeko» eskatu diete ETAko kideei

Joseba Arruti | BILBO

Olaia Kastresanaren heriotzak erreakzio andana eragin zuen atzo, egun osoan zehar. Hego Euskal Herrian jai eguna izan arren, ordezkari politiko ugarik egin zuten berba Torrevellan (Alacant) herenegun iluntzean jazotako leherketaren inguruan.

Eusko Jaurlaritza osatzen duten alderdien izenean Iñaki Anasagasti jeltzaleak eta Gorka Knörr EAko idazkari nagusiak azaldu zituzten euren ikuspuntuak. Espainiako Kongresuko EAJren bozeramaileak tamalgarritzat jo zuen Kastresanaren heriotza, baina «ETAren heriotza bat gehiago» dela erantsi zuen. Anasagastik talde armatuaren aurka jo zuen «sortu zenetik 40 urte igaro eta gero ez baitu inolako irakurketarik egin maiatzaren 13ko hauteskundeen emaitzez eta inora ez daraman lasterketa ero honetan jarraitzen duelako».

Gorka Knörren ustez, Torrevellan gertatutakoa «ETAk indarrean jarritako norberaren eta besteren suntsipenaren metafora da». EAko buruzagiaren arabera, «gertakizun horren atzean, indarkeriazko ekintza guztietan bezalaxe, familia suntsitu bat eta samina eta sufrimendua besterik ez dago, hori baita indarkeriak dakarrena».

Iturgaitz «pozik», Kastresanak «hiltzeko asmoa zuelako»

EAEko PPko presidente Carlos Iturgaitzek bere «poza» azaldu zuen «ETAko kide bat gutxiago dagoelako, hiltzeko asmoa baitzuen; eta kasu horretan behintzat hori amaitu egin da». «Pozik egon behar dugu hiltzaile honek ez duelako bonba gehiago jarriko ezta errugabe gehiago hilko ere, eta jendaila honi gogorarazi egin behar zaio suarekin jolasten dabilena erre egiten dela».

PSOEren barruan erreakzio bat baino gehiago izan zen. Madrilen Jesus Caldera bozeramaile parlamentarioak adierazi zuenez, «demokrazia beti tristatzen da bizitzaren bat galtzen denean, baina honelakoak gorrototik eta fanatismotik aritzen denean gertatzen dira». Calderaren irudiko, Torrevellako gertakizunean «zerbait positiborik badago, hori errugabeen bizitzak salbatu izana da». Bere esanetan, Kastresanaren heriotza «alferrikakoa» da, indarkeriak ez baitu lortuko Espainiako gizartearen «askatasun eta bake nahiak menperatzea».

Valentziako sozialistek ere euren iritzia eman zuten gai honen inguruan. Erkidego hartako sozialisten idazkari nagusi Joan Ignasi Plak esan zuenez, ETA «gizarte valentziarra beldurtzeko beste ahalegin bat egiten ari da». Plaren ustez «pozgarria da terroristen nahiak asmo hutsean geratu izana eta hortik aurrerako ezer ez jazotzea».

Valentziako buruzagi sozialistak bere konfiantza agertu zuen «EAJ apustu argia egin eta lehendakariak esan duen bezala indarkeriaren aurkako borroka lehentasuntzat hartuko» duelakoan.

EB-IUko legebiltzarkide Kontxi Bilbaok Europa Press berri agentziari adierazi zionez, Olaia Kastresanaren heriotzak «hausnarketa eragin» behar die ETAri eta EHri, «praktikatzen duten indarkeriaren ondorioen inguruan». Bilbaoren hitzetan, «euren estrategiaren porrota onartu behar dute, eta behin betiko su-etena aldarrikatu».

EB-IUkoaren irudiko, «heriotza bat beti da mingarria baina horren erantzukizun nagusia gazteon eskuetan lehergailuak eta armak jartzen dituztenena da».

ESANAK

IÑAKI ANASAGASTI
(EAJ bozeramailea Kongresuan)

«Olaia Kastresanarena ETAk eragindako beste heriotza bat gehiago da»

GORKA KNÖRR
(EAko idazkari nagusia)

«ETAk eragiten duen suntsipenaren metafora da heriotza hau»

CARLOS ITURGAITZ
(EAEko PPko presidentea)

«Pozik egon behar dugu hiltzaile honek ez duelako bonba gehiago jarriko eta ez dituelako errugabeak hilko»

JESUS CALDERA
(PSOEko bozeramailea Kongresuan)

«Demokrazia beti tristatzen da giza bizitza bat galtzen bada»

JOAN IGNASI PLA
(Valentziako sozialisten burua)

«ETA gizarte valentziarra beldurtzeko ahaleginean ari da»

KONTXI BILBAO
(EB-IUko legebiltzarkidea)

«Heriotza honen erantzulea gazteon eskuetan armak eta lehergailuak jartzen dituena da»

ERREAKZIOAK

ELKARRI

«Indarkeriazko borrokaren estrategia amaitu behar da»

Elkarri gizarte mugimenduak bere samina azaldu zuen Olaia Kastresanaren heriotzagatik. Bere aburuz, «heriotza honek berriro modu gordinean eta zuzenean planteatzen du indarkeriazko borrokaren estrategia lehenbailehen amaitu beharra, bide baketsu eta demokratikoei lekua uzteko». Elkarrik aditzera emandakoaren arabera, «borroka armatuak sufrimendua eta suntsipena eragiteko duen gaitasun aski ezaguna berau denboran zehar luzatzeak dakarren zentzugabekeriaren eta zorigaiztoaren sentsazioarekin bat eginda doa».

BAKEAREN ALDEKO KOORDINAKUNDEA

«ETAren estrategiaren zentzugabekeria frogatzen du»

Bakearen Aldeko Koordinakundeak (BAK) bere etsipena agertu zuen «giza bizitza baten galeragatik». BAKen iritziz, «heriotza berri honek agerian jartzen du, berriz, ETAren indarkeriazko estrategiaren zentzugabekeria». Koordinakundeak hedabideei helarazitako prentsa ohar baten bitartez adierazi zuenez, «heriotza honek eta beste batzuek frogatu egiten dute ETAren indarkeria, oinarrizko giza eskubideen aurka doalako erabat gaitzesgarria izateaz gain, heriotza, sufrimendua eta samina ez den beste fruiturik emateko gauza ez dela».

TERRORISMOAREN BIKTIMEN ELKARTEA

«Berez baloratzen da etakide batek bere buruaz beste egitea»

Espainiako Terrorismoaren Biktimen Elkarteko (AVT) zuzendari Juan Antonio Corredorrek atzo esan zuenez Olaia Kastresanaren heriotza «berez baloratzen da»: «Etakide batek lehergailu batekin bere buruaz beste egitea berez baloratzen den zerbait da eta ez du inolako iruzkinik behar horretaz dudan iritziaren inguruan», esan zuen. Hala ere, Terrorismoaren Biktimen Elkarteko buruzagiak nabarmendu nahi izan zuenez «pentsatzekoa da» Torrevellan zartatutako lehergailua «errugabeen aurka» zuzendutakoa izango zela.

JUAN MARIA URIARTE
(Donostiako apezpikua)

«Neuk ere min dut, nahiz eta lasaitu handia hartu»

«Neuk ere min dut, eta bizirik dut min hori nahiz eta lasaitu handia hartu, berriro gaitzetsi beharrean izango nintzen beste atentatu bat eragotzita ikusi dudalako», adierazi du Juan Maria Uriarte Donostiako gotzainak, Olaia Kastresanaren heriotza dela eta. «Samin honek gogorazi eta areagotu egiten ditu nigan kezka eta tristura, ikustean gure herriak ez dituela oraindik aurkitu baketze eta adiskidetze bideak gaur deitoratzen dugun bezalako tragediarik ez gehiago izateko», gaineratu zuen.